

Hitzaurrea

Azken urteotan globalizazioak aurrerapen itzela egin du, eta globalizazioaren ezaugarrietako bat migratzaileen etorri handia da, aberastasuna gaizki banaturik eta kapitalismo neoliberalak nagusi den mundu honetan.

Hainbat alde sozioekonomikori begira jarritz gero, esaterako, demografiari, Europan eta Euskal Herrian, oro har, dauzkagun jaiotza-tasa gero eta apalagoak konpentsatze aldera ondo etorri zaigu. Enpresariak kualifikazio gabeko lanak merke eskuratzeko puntuan ere bai —eraikuntzan, esaterako—; eta halaber, erosahalmen gutxieneko bat daukagun herritarrok adineko ezinduak merke zaindu ahal izateko eta etxeak merke garbitzeko-eta, onuragarria zaigu migrazioaren fenomenoak.

Haatik, ez gara abantaila horietaz arituko lan honetan, ez eta estatuak eta enpresariak etorkinei eragindako giza eskubideen urraketez eta esplotazioaz edo migratzaileek gizarte berrira egokitzeko dituzten zailtasunez ere —azterketa soziologiko baten berri emanagatik—, baizik eta nagusiki Espainiako lurralde pobregotatik Euskal Herri penintsularrera etorritakoek —eta Kataluniara ere bai, beste maila batean— ekarritako ohitura ezberdin eta askotan propio nahi izan gabe haiek eragindako minorizazio linguistiko-kulturalaz, eta euskal eta katalan nazionalista eta independentistek immigrazioaren fenomenoaz hedaturiko diskurtsoez —erabakiak beti Espainiako Estatuak hartu izan ditu—.

Katalunia lan honetan sartu dut, batetik, euskaldunok bezala katalanak ere, espainiarrek menderatuak egon direlako politikoki; eta, bestetik, han ere, hemen bezalatsu, immigrazioaren fenomenoak handia izan delako eta katalanari eta katalanei arazoak sortu dizkielako beren identitate nazional-linguistikoan. Denok dakigu katalanek gehiago eutsi diotela katalan hizkuntzari, hainbat arrazoiengatik, baina guk bezala —guk baino gutxiago ere— ez arazorik gabe. Dena den, Kataluniako immigrazioari eskainitakoa lagin apal bat baino ez da, ispilu hartan geure buruak ikusirik, geure egoeraz hobeki jabetu gaitezen paratua.

Estatu aspaldi sendotuentzat ere ez da erraza migratzaile ugari beren estatu-hizkuntza hegemonikoan eta kulturaren integratzea —esaterako, alemaniarrentzat turkiarrak edota frantsesentzat kolonia ohietako herritarrak—, eta estaturik gabeko Katalunia eta Euskal Herria bezalako nazio edo herri zatikatu eta zapalduentzat are zailagoa; izan ere, bai behialako estatuko desplazatuak kasuan bezala, azken urteotako migratzaileen kasuan, ohikoena estatuaren hizkuntzan eta kultura hegemonikoan integratzea izan ohi baita arrazoi aski jakinengatik, salbuespenak

salbuespen, bereziki haiek estatu-hizkuntza jakinez gero, Hego Euskal Herrian hispanoamerikarrek gertatzen den bezala.

Lan honi ekiteko zirkunstantzia pertsonalagoetara etorritz, Txillardegiren borroka abertzalearen gainean lanean niharduela, immigrazioari buruzko artikulua eta haiek sortutako polemikak irakurtzea egokitu zitzaidan. Espainiako hainbat eskualdetatik iragan mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan kopuru handitan etorritako immigranteek —frankismo betean, Hego Euskal Herriak eta Kataluniak kasik batere eskubide soziopolitiko eta kulturalik ez zuten garaian; katalan eta euskaldun askok erbestean jarraitzen zutenean arrazoi politikoengatik, eta beste asko arrazoi sozioekonomikoengatik erbestera joaten ari zirenean— euskal abertzaletasunari planteatzen zizkioten erronkez Txillardegik idatzitakoek sortu zituzten erantzunak eta kontraerantzunak.

Idatzi horietan irakurritakoek gogora ekarri zizkidaten Josep Lluís Carod-Rovirari Kataluniako immigrazioari buruz irakurritakoak, eta ERCko idazkari nagusia izandakoak Heribert Barrerak egindako adierazpen xenofoboez esandakoak.

Irakurlea berehala ohartuko denez, immigrazioa eta abertzaletasuna lan honetan batez ere hizkuntzaren eta kulturaren aldetik arakutzen dira, egungo egoera linguistiko-kulturalera nola iritsi garen ulertu nahian. Euskaraz arlo guztietan bizi nahi dugun euskaldunok hamaika zailtasun ditugu eta hori aspalditik datorkigu. Jakitun naiz immigranteek ez dutela, oro har, errurik, baina harritzekoa gertatzen da bereziki azken immigrazio-olatuak, hirugarrenak, euskal abertzaleen artean kezka eta diskurtso gehiago sortu ez izana.

2022an, EAEk sei bat mila biztanle irabazi omen ditu. Hori batez ere immigrazioagatik gertatu omen da. Denok dakigu sei mila horietatik askok gaztelania ikasi beharrik ez dutela izango hispanoamerikarrak direlako, eta gainerakoek, albuespenak albuespen, gaztelania ikasiko dutela eta ez euskara; hau da, 500 milioi hiztunen kopuru eskerga ugarituko dute eta guk, beti bezala, helduengan ez baizik eta etorri berri horien seme-alabengan jarriko dugu esperantza, eskolaren bitartez euskalduntzen joango ote diren. Denok dakigu eskolak ez duela askotan euskalduntzen eta miraririk ezin duela egin, baina immigrazioaren eragin linguistikoa diskurtso politikotik kanpo gelditzen da. Quebecen, kasu, immigrazio-plazetatik erdia frantses hiztunentzat gorde izan dute; gurean, espainiar legediari jarraikiz, gaztelaniaz dakitenek dituzte abantailak. Inoiz ez da planteatu euskaldunentzat abantailak planteatzea —Iparraldekoak, diasporakoak, nonahikoak—; aitzitik, trabak jartzen zaizkie.

Ikuspegi horretatik gerta daitezke ulergarri ikerlan honetan egin ditudan hautuak, eta betiere kontuan harturik, lagintxo batzuk baino ez ditudala arakatu.

Lehen atalean, Manuel Irujok, Zeferino Xemeinek eta Jose Antonio Agirre jeltzaleek, ANVko Jose Olivares «Tellagorri»-k, eta *Irrintzi* aldizkariko jeltzale

disidente ziren Manuel Fernandez «Matxari»-k eta Andima Ibinagabeitiak espainiar etorkinen etorrera masiboaz 50eko hamarkadaren bigarren zatian emandako iritziak tolestu ditut. Manu Sotari ere tarte bat egin diot, nahiz haren kasuan Espainiako II. Errepublikaldian emandako iritziak jaso ditudan. Sabin Aranaren iragan mende-hasierako espiritua hilda ez zegoen, baina oso aldatua bai 36ko gerraren eta ondoko erbestearen ondoren eta Parisko Lehen Euskal Mundu Batzarretik aurrera, eta esan liteke nagusi etorkin espainiarren integrazio-nahia zela. Haiek bertako sentitzea, gaztelaniaz bazen ere.

Bigarren atalean, atzera egin dut denboran, Sabin Arana, Engrazio Aranzadi eta Ramon Goikoetxea «Iberoko ebanjelaria»-ren adierazpen polemiko gorienen bila. Aurkitu ditut halakoak bai (espainiarrak dira *gure moroak!*), baina lehenago esan bezala, 50eko hamarkadan, hotzilduak eta hoztuak ere bazeuden, bereziki 36ko gerrak ekarritako aldaketa eskerga zela medio.

Atzera jotze horretan, nabarristenganaino¹ heldu naiz. Niretzat ezustekoa izan da Arturo Kanpion bat, esaterako, beste ikuspegi batetik irakurtzea. Haren *La Bella Easo, Blancos y negros*, edo *García Almorabid* nobelak eta hitz lauukoak irakurtzea, eta Sabin Aranarekiko aldeei eta kideasunein erreparatzea.

Atal berean egin diet leku lehen katalanistei, Prat de la Ribari bereziki, hura izan baitzen katalanentzat, aldeak alde, guretzat Sabin Arana izan zena. Eta Francisco Cambó famatuagoari ere bai. Sabin Aranak oso urrun sumatzen zituen katalanistak: haiek onenean, federalista espainolak ziren eta bera independentista, eta, jakina, etorkinekiko ikuspegia ere oso ezberdina zuen.

Hirugarren atalean, lehen etakideen ikuspegiak jaso ditut, batez ere Txillardegirenak, eta David Lopez Dorronsorenak eta *Errementari* ezizenez sinatzen zuenarenak.

Atal berean sartu dut Rikardo Arregi. 1963-1965 bitartean EAJren EGI erakundean egon zen, eta gero sozialismora eta ezker berrira igaro zen. Batetik, euskalduna izatea gero eta zailagoa zela zioen, eta, norberak euskara landu beharra proposatzen zuen, herrigintzak eta gizagintzak hemen euskara galdegiten zutelako; eta, bestetik, etorkinek euskara ikasi beharra planteatzen zuen, bertako euskaldunek giroa euskalduna izan zezaten behar-beharrezkoa izaki.

1. Testu hau arretaz eta arduraz irakurri duen Pruden Gartzia egindako oharren artean dago «nabarrista» deizioaren ordez «nafarzale» erabili beharko nukeelakoa, hain zuzen egungo UPNkoen navarrismo espainolzaletik bereizteko. Ez natorkio bat puntu horretan. Nahiago dut oin-ohar honetan azalpen labur bat eman eta «nabarrista» izendapena mantendu. «Nabarrista» deizioa Juan Iturralde buru zutela (Arturo Kanpion, Nikasio Landa...), hamahiru lagunek sortutako «Asociación Euskara de Nabarra/Nafarroko Euskarazko Elkargoa» elkarteko kideen ideologia izendatzeko erabili da. Euskal etnia-zibilizazioko Nafarroa euskaldunaren —nafarzale kontzientek— eta Euskal Herriko lurraldeen federazioaren aldekoak izendatzeko, eta baita halaber, haiek navarrista espainolzaileengandik bereizteko ere. Bide batez eskerrak ematen dizkiot Pruden Gartzia arretaz irakurri eta ohar baliagarriak egiteagatik.

Atal berean sartu ditut, halaber, Martin Ugaldek eta Jon Apalabeitiak etorkinei buruz *Alderdi*-ren ale monografikoan emandako iritziak ere. 1971koak dira, eta etakideenak eta jeltakideenak atal berean jasotzea eztabaidagarria bada ere, nik uste, lekua hortxe dutela, ez baitaude elkarrengandik urrun, aldetxoak alde.

Laugarrenean, Katalunian integrazioari begira egindako diskurtsoak harildu ditut. Francisco Candekek, guraso etorkinen semea, Kataluniako immigrazioari buruz asko idatzi zuen, eta oso irakurria izan zen. Haren lanik famatuena, *Els altres catalans* (15 edizio, 53.000 ale salduak 1964tik aurrera; katalanez idatzia ez, baina argitaratua bai, hots, itzulia), Jordi Pujolek egindako harrera ona, eta ezkerreko katalan independentista Manuel Cruellsek egindako harrera kritikoa tolestu ditut, eta, guztien gainetik, Jordi Pujolek immigraanteei buruz espresuki idatzitako liburuari buruzko iruzkinak.

Bosgarren atala da laburrena; izan ere, Hego Euskal Herrian azken mendekaldetako immigrazio berriak ez du diskurtso berririk sortu. Polemika bai, kasu, Xabier Arzalluzek 2000. urteko Aberri Egunean egindako adierazpenek. Katalunian, aldiz, gehixeago, baina ez asko, halere. Heribert Barrerak polemika sortu zuen egin zituen adierazpen batzuegatik, eta Josep Lluís Carod-Rovirak ñabartu eta leundu zituen Barreraren adierazpen gogorrenak, baina aldi berean haren uberan kokatu zituen bereak.

Era berean, Julen Zabalo beste hiru lankiderekin batera, 50-80ko immigrazio espainiarrari buruz egindako azterlanari egiten diot leku, eta horren ondotik, Iker Iraolak euskal nazionalismo eta immigrazioaz 2013an egindako tesiari.

Ohar garrantzitsu bat egin nahi diot testu hau irakurtzera abiatzen denari: lan honetarako hain aldi-bitarte luzea hartu dudanez, eta ezinbestean informazio mugatua erabili dudanez, esan behar dut testu irekia dela, osatu beharrekoa. Ezintasun horregatik joan naiz lorturiko materiala aztertu ahala interpretazio partzialak eta behin-behinekoak aditzera ematen, eta horietatik axolazkoen jotako batzuk amaierako laburbilduman jaso ditut.

Kontuan izan dut lan hau egitean, Jose Maria Sanchez Carrion-ek *Un futuro para nuestro pasado*-n etorkinez adierazitako iritzia, hots, jatorrizko hizkuntza galtzera daraman estortsio-paradigmatik norbere hizkuntzan hiztun oso izatera daraman optimizazio-paradigmatik ziharduera, etorkinei buruz egindako adierazpenak:

Beste biztanleria-sektore bat bertakoak ez diren helduak dira: lurraldez atzerrituak, arrazoi sozioekonomikoengatik beren jaioteritik atzerrituak eta hizkuntza gutxituaren lurraldetasunaren erdigunean enkistatuak. Estatu espantsionario bateko botere-elitea sektore horrekin jolasten saiatzen den jokia nahiko maltzurra da: bosgarren zutabe gisa erabiltzen ditu, hizkuntza azpiratuko hiztunei zirkuitulaburra egiteko, eta haiek atzerritar sentiarazten ditu bere lurraldean bertan. Horrela, adibidez, euskaldunen kasuan, euskaldunak erdaldun desnatibizatuz eta natibo erdaldun desplazatuz inguratuta gertatzen dira, goitik eta behetik. Denak «vascos» direnez eta gehienak

erdaldunak direnez, euskalduna izatea «vasco» izateko modu marjinal eta minoritarioa izatera igarotzen da. Zentro bat, Hizkuntza Komunitate Euskalduna, periferia baten periferia bihurtzen da. (Sánchez, 1991, 267-272. or.)².

1991n argitaratu zuen liburua Sanchez Carrionek eta, oro har, ez diogu kasurik egin, baina immigrazioaren arazorako planteatzen duen aterabidea testu honen laburbildumaren amaieran jaso dugu.

2. «El otro sector de población lo constituyen los adultos no nativos: son los expatriados territorialmente, masas de población expelidas por razones socioeconómicas de su lugar de origen y enquistadas en el centro de la territorialidad de la lengua minorizada. El juego que la élite de poder de un estado expansionario trata de jugar con este sector es bastante siniestro: los utiliza como quinta columna para cortocircuitar a los hablantes de la lengua sojuzgada, haciéndoles sentirse extranjeros en su propia tierra. Así, por ejemplo, en el caso vasco, los euskaldunes pasan a estar rodeados, por arriba y por abajo, de erdaldunes desnativizados y de nativos erdaldunes desplazados. Como todos resultan ser vascos y la mayoría de los vascos son erdaldunes, ser euskaldun pasa a ser una manera marginal y minoritaria de ser vasco. Un centro, la Comunidad Lingüística Euskaldún, se convierte así en la periferia de una periferia».

1. Espainiatik etorritako bigarren etorkin-olatuak (1950-1970)

Umea nintzela, etorkin batzuk heltzen ari ziren eta beste batzuk helduak ziren Gaztela-Leon eta Extremaduratik-eta nire jaioterrira. Administraziooko funtzionarioak, guardia zibilak, maisu-maistrak eta fraide-mojak alde batera, gehienak langile xumeak ziren, eta eskola gutxikoak. Haietako askorentzat etxe duinik ez zegoen, nola-hala kokatzen ziren teilatupeetan, beheko solairuetan: familia berekin ekarri zutenak bostentzat zegoen lekuan hamar sartu ohi ziren; bakarrik etorritako gizon gazteak apopilo-etxeetan bizi ohi ziren, eta haietako batzuk euskaldunekin ezkondu ziren.

Bilbo inguruan eta, Otxarkoagan, esaterako, txaboletan kokatu ziren 50eko hamarkadan; duela urte batzuk errumaniarrak Gipuzkoako Astigarragan zubibidearen azpian bizi izan ziren bezalatsu bizirik, eta 60ko hamarkadan, berriz, hainbat etxadi eraiki zituen erregimenak, eta gehienak haietara igaro ziren, 20.000 lagun inguruko langile-auzoak eraturik, ia osorik Espainiatik etorritako herritar behartsuz.

Haietako askok gaztelania itxia egiten zuten, guri hala iruditzen zitzaigun behinik behin, eskolan ikasten genuen gaztelaniatik ezberdina, nahasiagoa. Askok siderurgian aurkitu zuten lana, metal-arloko tailer txikietan, portuan, egur-lanean...

Datu hotzetara etorrita, Bizkaiak 1877an, 190.000 biztanle zituen erroldatuak (Urkidi eta Asenjo, 2008); 1900ean, 312.000, hots, 122.000 biztanle gehiago, eta horiek Bilboko inguruetan eta Meatzealdean kokatu ziren gehienbat, eta gehienak Espainiatik etorritakoak ziren; 1950ean, 570.000 zituen, eta 1981ean, 1.182.000, hots, 600.000tik gorako igoera izan zuen, bereziki 50eko eta 60ko hamarkadetan, hots, bikoiztu baino gehiago egin zen.

Gipuzkoa, berriz, 1950etik 1981era, 374.000tik 693.000ra igaro zen, hots, 320.000 biztanle irabazi zituen, ia bikoizturik. Arabak 1960an, 142.000 zituen, eta 1970ean, 207.000, eta Nafarroa Garaia, hamarkada berean, 402.000tik 465.000ra igaro zen. Eta horietatik gehienak Espainiatik etorriak.

Francoren erregimenaren pean, euskal botererik ez zen, eskolan, administrazioan, hedabideetan gaztelania jaun eta jabe, askoz lehenagotik zetorren erdalduntzea ikaragarri areagotu zen; Txillardegik 400.000ko etorkin kopurua eman ohi zuen, eta

ez zebilen oker. Proporzio berean, Espainiara hogeit hamar urtean hamabost edo hogeit hamar milioi kanpotar etortzea bezalatsu, egungo kopuruak kontuan harturik.

Abertzale gailen asko erbestean zen, arrazoi politikoengatik. Erbestean plazaratu ohi zituzten beren agerkariak, beren ikuspegiak, salaketak eta etorkizunerako asmoak. Gerraurreko abertzaleek Parisen edo Baionan argitaratzen zen *Alderdi*-n (EAJren agerkaria); Buenos Airesen kaleratzen zen *Tierra Vasca*-n (ANVren agerkaria) edo Caracasen plazaratzen zen *Irrintzi*-n (jeltzale disidenteak: Andima Ibinagabeitia, ANVko Matxari...) agertzen zituzten beren ikuspegiak etorkin espainiarrez.

Eta gerraondoko abertzaleek, etakideek, bereziki *Zutik* agerkarian plazaratzen zituzten iritziak eta salaketak, 1962tik aurrera.

Espainiako eskualde pobreenetatik zetozenak beharrezkoak al zituen euskal industriak?, beharrezkoak izanagatik, gehiegi ez ote ziren? Aldi berean, nekazaritza-guneetatik, Bizkaiko Lea-Artibai-Txorierri eskualdeetatik edo Nafarroako Baztanetik euskaldun jendea Ameriketara (Idaho, Nevada, California, Buenos Aires) edo Australiara (Queensland) abiatzen zen, emigratu egiten zuen Euskal Herrian ongi ezin bizirik, artzain edo azukre-kainabera sailetan lan egitera.

Francok antolaturiko immigrazioa ote zen: Katalunia eta Euskal Herria Txinak Tibet bezala inbaditu soziologikoki eta bertakoak gutxiengoan ezarririk bi herri ezberdinak asimilatzeke, denak espainiar bilakatzeko denbora gutxian, hizkuntza eta gainerako bereizgarriak diluituz eta ezabatuz?

Kanporatu egin behar ote ziren edo asko murriztu botere politikoa eskuratzean?, baztertu eta haiekin ezkondu ez, endekatze-bide izan zitezkeelakoan euskaldun eta euskotarrentzat?, ala integratu egin behar ziren eskuzabal eta jator portatuz haiekiko, haiek ere gure alderako hala joka zezaten? Garrantzizkoena ez al zen euskaldun kontzientzia eta izaera tinko eta irmo atxikitzea?

Zehazki zer gertatu den baino gehiago —gure lan xume honetatik kanpo gelditzen da lantegi eskerga hori—, etorkin espainiarrek planteaturiko galdera eta erronkak direla eta, euskal eta are katalan abertzale zahar eta berri gailen batzuek zer adierazi zuten miatuko dugu ondoko ataletan. Katalanei zergatik erreparatzen diegun?, biak ere politikoki Espainiako Estatuaren mende egon direlako, eta alde horretatik zapalkuntza bertsua nozitu dutelako, aldeak alde direla.

1.1. MANUEL IRUJO, ZEFERINO XEMEIN, JOSE ANTONIO AGIRRE, MANU SOTA

«Los coreanos» izenburu esanguratsua jarri zion Manuel Irujok 1957ko ekainean *Alderdi*-n plazaratu zuen artikuluari. Hasteko, Tomas de Egidazu abokatuak Sabin Aranaren defentsan (1895eko prozesuan; 1902koan Manuel Irujoren aita Daniel Irujok aldeztu zuen. Arana eta Irujoren aita ikaskideak izanak ziren Urduñako

jesuitetan, eta gogaideak) esandakoetatik, zati adierazgarri bat hautatu zuen. Hona hemen lerro batzuk:

Aberria kohesio-indar horrekin mantentzen da, zeinak inbasioa dirudien zerbait ikustean, bertakoen ahotan «castellanot», «maketo», «gabacho», «atzerritarra» edo «erdeldun» hitza jartzen duen. Horrek ez du eragozten, bakoitza bere etxearen jabe izanik eta beste inposiziorik onartu gabe, atzerritarra era guztietako kontsiderazioekin eta bihotzetik jaiotako maitasunez tratatzea (Irujo, 1957)³.

Ondotik, funtzionario eta maisu-maistra eta polizia-guardia zibilen deskribapena ez, baizik eta etorkin espainiar gehienen deskribapen aski errealista eta egiari lotua iruditzen zaiguna egiten zuen:

Gizon eta emakume horiek herrialde miserabletatik datoz. Goseak bultzatuta irten ziren. Lana aurkitzeko asmoz iritsi ziren Euskadira (...). Gaur egun, langile-masaren esku utzitako lanik xumeenak betetzen dituzte. Txabola eta etxoletan bizi dira askotan (...). Tailerren, lantegien, harrobien, herri-lanen eta baso-ustiategiaren jabeek eta zuzendariak lana ematen diete, behar dituztelako. Herrialdeak, oro har, aurpegi txarrez begiratzen die, jende arrotz, zarpail eta ijito-itxurakoari bezala (...). Goseak dira, gose atzeratua dute, belaunaldien eta belaunaldien gose atzeratua, azken aldi honetan gobernurik ezak areagotua (...). Egunero «bero jan» ahal izatea beste asmorik gabe, erromesaldiari ekin zioten. Eta hor ditugu, gure hiri industrialetan finkatuta, gure zelaiak inbaditzen, «gosea hiltzen» izerdiaren prezioan, zeinarekin Euskadiren industrializazioan laguntzen baitute (*Id.*)⁴.

Deskribapen aski errealista horrekin batean, inguruan zer entzuten zuen ematen zuen aditzera, eta noren ahotik, hain justu, atzo etorritakoen seme-alaben ahotik:

Behin baino gehiagotan entzuna dut, bizimodu normal batera itzultzen garenean, koreanoak kanporatu behar direla lehenik eta behin: beren herrialdera itzul daitezela eta gurea nahi ez duten presentziatik aska dezatela; haien odol arrotzak gure arraza zikintzen duela; haien giza erlauntzek euskara galtzen laguntzen dutela; eta erregimen frankistak antolatutako inbasioa dela, herrialdea desnaturalizatzeko, zeinak, bere burua aurkitzen duenean, ezin baitu erreakzionatu inbaditzaileak kanporatuz ez bada. Azken hau gure herrian jaiotako euskotarren ahotik entzun dut, hain zuzen ere Arana Goiriren

3. «La patria se conserva con esa fuerza de cohesión que, al ver algo que parece invasión, pone en boca de sus naturales la palabra “castellanot”, “maketo”, “gabacho”, “extranjero”, o “erdeldun”. Que esto no está reñido para que, siendo cada uno dueño de su casa y sin admitir ajenas imposiciones, se trata con toda clase de consideraciones, y con cariño nacido del corazón, al extranjero».

4. «Esos hombres y mujeres proceden de países miserables. Salieron de ellos impelidos por el hambre. Llegaron a Euzkadi para encontrar trabajo (...). Ocupan hoy las labores más humildes confiadas a la masa obrera. Viven no pocas veces en chozas y cabañas (...). Los dueños y directores de talleres, fábricas, canteras, obras públicas y explotaciones forestales les dan trabajo porque los necesitan. El país, en general, los mira con mala cara, como a gente extraña, harapienta y agitanada (...). Tienen hambre, hambre atrasada, atrasada de generaciones y generaciones, agudizada estos últimos tiempos de desgobierno (...). Sin otra aspiración que la de poder comer caliente cada día emprendieron su peregrinación. Y ahí los tenemos, asentados en nuestras ciudades industriales, invadiendo nuestros campos, “matando el hambre” al precio de su sudor, con el que cooperan a la industrialización de Euzkadi».

defentsa ahoskatu zenean, Bizkaitarrak «maketos» deitzen zien gurasoen seme-alabengandik (*Id.*)⁵.

Baina bera ez zetorren bat. Onartzen zuen orduko *koreanoek* iraganeko *maketoek* bezala, laguntzen zutela gure arraza lohitzen, euskara gal zedin, eta euskaltasuna urtu zedin; eta egiantza bazuen delako inbasioa erregimenak sustatua izateak Euskal Herriak bere izaera gal zezan, baina egitate eta uste horiek onarturik ere, honela zioen: «Guk, kristau, demokrata, formakuntza sozialeko gizaki euskotar garen aldetik, beste modu batera erantzun behar dugu»⁶.

Kanpotarrak kanporatu nahi izatea ezinezkoa zen, euskal industriak behar zituelako. Beso horiek lanerako ezinbestekoak genituen. «Gizakiaren eskubideek» babesten zituzten, eta «ebanjelioak» ere bai. Ez genituen mespretxatu behar, baizik eta prestatzen hasi behar genuen gizaki gisa onartzeko, eta:

Beren txabola eta txabolen orde zuten pertsonen gela duinak jartzeko behar dutena egitera, ezagut gaitzaten, maita gaitzaten eta, horrela, euskaltasunak eta euskaltasunerako xurgatuak izan zitezten saiatuz, gure giza taldean barneratuz, ondorio horri datzekion ondorio guztiekin (*Id.*)⁷.

Ikusten duzuen bezala, hor ez dago inon arrazismo edo xenofobiarik, hor dagoena integrazio-nahia da. Baina integrazio horretarako askoz baliabide hobek zituen Espainiako Estatuak, bere ezaugarriekin, euskotarrak asimilatzeke, estaturik gabeko euskal nazioak, bere ezaugarri aspalditik eraldatuekin, etorkinak beren ezaugarrien arabera integratzeko baino. Estatuko lurralde pobretuetatik zetozenak irabazi behar genituen —beste hautabiderik ere ez genuen—; hartara, geuretakoak izan zitezten bihar.

Gorago jaso dugu nola *koreanoak* hemendik kanporatu behar zirela zioenetako baten gurasoak lehen olatuko etorkinak zirela, *maketoak*, XIX. mendearen amaieran Bizkaira helduak. Bera ez zetorren bat, baina halako baieztapena etorkinen ume baten ahotik entzuteak atsegin pixka bat ere ematen zion; izan ere, pasadizo hark aditzera ematen zuen belaunaldi bat nahikoa izan zela XIX. mendeko immigrazioa

5. «He oído más de una vez decir que, cuando volvamos a una vida normal, lo primero que hay que hacer es echar a los coreanos: que se vuelvan a su país y que liberen el nuestro de su presencia indeseable; que su sangre extraña impurifica nuestra raza; que sus colmenas humanas contribuyen a la pérdida del euzkera; y que se trata de una invasión organizada por el régimen franquista para desnaturalizar el país, el cual, cuando se encuentre a sí mismo, no puede reaccionar de otro modo que echando a los invasores. Esto último lo he escuchado de labios de vascos nacidos en nuestro país, hijos de padres a los que, cuando la defensa de Arana Goiri fue pronunciada, Bizkaitarra llamaba “maketos”».

6. «Nosotros, como cristianos, como demócratas, como hombres de formación social y como vascos, debemos reaccionar de manera distinta».

7. «A hacer lo necesario para que cambien sus chozas y chabolas por habitaciones dignas de los hombres, procurando que nos conozcan, que nos quieran y que, de tal manera, sean absorbidos por lo vasco y para lo vasco, entrando a formar parte de nuestro grupo humano, con todas las consecuencias inherentes a esta conclusión».

geureganatzeko («absorber» dio gaztelaniaz). Pasadizo gehiago ere bazituen lehen etorkin-olatu hura egoki geureganatu genuela edo zela pentsatzeko:

Gogoan dut Iñaki de Rotaetxeren harridura, garai hartan La Roblako Trenbidearen Ingeniari Zuzendaria zena —eta hau ez zen hain zuzen ere atzo izan— zerbitzuaren beharrek langile talde bat Bilbotik La Roblara eramatera behartu zutenean. Mutil ezkongabeak aukeratu zituen bizitza familiarra ez oztopatzeko, bere bulegoan bildu eta arazoa planteatu zien. Haietako batek, guztien izenean, hauxe erantzun zuen: «Euskotarrak ez du herrialdetik kanpora lanera atera nahi». Rotaetxek atsegin handiz onartu zuen jarrera hura. Enpresako langile gehienak «maketoak» ziren. Euskotarrak salbuespen ziren: hori uste zuen berak behintzat. Baina oker zegoen. Aurrean nituen guztiak herrialdean jaioak ziren. Batzuek bigarren abizen euskalduna zuten. Inork ez zuen gogoratzen aitaren jatorrizko lurra. Euskotarrak ziren eta euskotar gisa tratatuak izan behar zuten (*Id.*)⁸.

Pasadizo hori irakurrita zenbait pentsakizun datozkit gogora. Elkarrizketa hura gaztelaniaz izan zela eskua sutan jarriko nuke, eta ez litzaidake erreko hain segur; ez dakit Iñaki Rotaetxek euskararik zekien, baina etorkin-umeez ez zekitela ez dut dudarik, eta elkarrizketa gaztelaniaz izan zelakoaz ere ez. Guretzat, euskalduna izateko hor euskara falta da, baina aitortu beharra dago 1920 inguruan, Bilbon, Leon ingurura lanera joan nahi ez zuten etorkin- seme horiek bilbotartuak zeudela gehienen ikuspegian, Bilboko bertako gehienek ere, beste nazio-ezaugarriak beste, ez baitzekiten euskaraz.

36ko gerra baino lehentxeago, ERCn kide eta alderdi hori franskismotik trantsizio delakora bizirik helarazten lan itzela eta eraginkorra egin zuen Heribert Barrerak, etorkinen integrazioaz mintzatzen ari, honela zioen katalan eta euskaldunen arteko aldeak nabarmentzen hasita:

Euskal Herriak beti izan du abantaila handia gure aldean, ezta? Eta hizkuntzaren aferarik ez dagoenez, hori funtsezkoa ez izanik, euskaldunak ez diren etorkinen integrazioa Katalunian baino askoz errazagoa izan da, ezta? (...)

Hara, katalanez ez dakiena... Entzun, atzo baino lehen heldu zena jada katalana bada... Orain denok gara katalanak, eta hori da doktrina ofiziala, baina azkenean, errealitatean, katalanez ez dakiena ez da katalana sentitzen, egitez. Bestalde, Euskal Herrian, euskaraz ez jakin arren, ezin hobeto senti zaitezke euskotarra. Orduan, badituzte, justifikatuak izan ala ez, desberdintasun genetikoei, euskal arrazaren prestigioari eta horiei guztiei buruz, eta horrek...mitifikazio pixka bat eman die, ezta? Alegia, euskaldun izatea

8. «Recuerdo la sorpresa de Iñaki de Rotaetxe, a la sazón Ingeniero Director del Ferrocarril de La Robla —y esto no fue precisamente ayer— cuando se vio obligado por necesidades del servicio a trasladar un grupo de obreros de Bilbao a La Robla. Escogió a muchachos solteros para no perturbar vidas familiares, los reunió en su despacho y les planteó el problema. Uno de ellos, en nombre de todos, se limitó a contestar: “El vasco no quiere salir a trabajar fuera del país”. Rotaetxe aceptó gustoso aquella posición. La mayor parte de los obreros de la empresa eran “maketos”. Los vascos constituían excepción: eso al menos creía él. Pero se equivocaba. Todos los que tenía delante habían nacido en el país. Varios tenían su segundo apellido vasco. Ninguno de ellos recordaba la tierra originaria de su padre. Eran vascos y requerían ser tratados como vascos».

frankismoaren une batzuetan katalana izatea izan zen zertxobait bihurtu da, ezta? (...) Katalana izatea sozialki igotzea zela, gizarte-maila bat lortzea, pixka bat... Azken finean, euskaldunek guk baino immigrazio gutxiago dute (Sinca, 2006, 182-183. or.)⁹.

Hori 2005ean adierazi zuen Heribert Barrerak, eta azken berrogeita hamar urteetan euskalgintzak lan handia egin badu ere, funtsean, errealitatetik urrun ez baizik eta nahiko hurbil zebilela edo dabilela esan liteke. Hirietan eta herri handi samarretan, eta txikietan ere, oro har, euskara jakin beharrik ez da egon Euskal Herrian bertako egiteko. Azken berrogei urteotan, esan liteke, administrazioko funtzionario eta irakaskuntzako funtzionarioen artean eta, euskara jakiteak, hein batean, gizartean gora egiteko aukera eman duela, eros-ahalmena handitzeko modua hortxe nonbait, hein ez handian, nolana ere, baina Heribert Barreraren baieztapena erabat okerra ere ez dela esateko lain bai. Egia da, bestalde, katalan-maila bat lortzea askoz errazagoa dela euskara-maila bat lortzea baino, gaztelania edo frantsesa jakinda.

Manuel Irujorengana itzuliz berriro, Iñaki Rotaetxeren pasadizo hura pozgarri bezala, negargarria beste hau iruditzen zitzaion:

Odol arrotzeko semea edo alaba, gure herrian jaio eta hazitakoa, euskotar sentitzen dela ikustean, etorkizunari konfiantzaz begira dakioko. Baina oso bestelakoa da espirituaren erreakzioa ikustean badaudela euskal senar-emazteak, non senarra eta emaztea euskaldunak diren, eta haien seme-alabek gure hizkuntza hitz egiten ez dutenak. Herrikide horiek koreanoen etorrera ikustean isuritako malkoak krokodilo malkoak dira. Horien aurrean, aipatzekoa da, salbuespenak izanagatik, badaudela «koreano» euskaldunak eta, kasu zehatz batzuetan, koreano-eskuek euskal erresistentziaren jardueretarako balio izan zutela (Irujo, 1957)¹⁰.

Beraz, ez zitzaion Sabin Aranari bezala gaizki iruditzen atzerritarrek, etorkinek, kanpotarrek euskara ikastea; aitzitik, txalogarri zeritzon, are euskaldun bilakatzearen frogatzat ere jotzen zuen —orain, euskara jakitea ezinbesteko ere ez zuen jotzen,

9. «El País Basc ha tingut des de sempre un gran avantatge sobre nosaltres, no? I és que no havent-hi la qüestió de la llengua, no sent això fonamental, la integració dels immigrants no bascos ha estat molt més fàcil que a Catalunya, d'acord? (...)»

Aquí, el qui no parla català... Escolti, si el que ha arribat abans d'ahir ja és català... Ara tots som catalans, i aquesta és la doctrina oficial, però en fi, en realitat, el que no parla català no se'n sent, de català, de fet. En canvi, al País Basc, encara que no parli en euskera es pot sentir perfectament basc. Després, ells tenen, sigui justificat o no, totes aquelles coses de les diferències genètiques, del prestigi de la raça basca i tot allò, que els ha donat una mica de... mitificació, no? És a dir, que ser basc ha passat a ser una mica el que ser català era en certs moments de la dictadura franquista, no? (...) Que ser català era pujar socialment, assolir un estatus social, una mica... Després, els bascos tenen menys immigració que nosaltre» (Sinca, 2006, 182-183. or.).

10. «Cuando uno contempla el hecho de que el hijo de sangre extraña, nacido y criado en nuestra tierra se siente vasco, puede mirarse al futuro con confianza. Pero es otra bien distinta la reacción del espíritu al considerar que hay matrimonios vascos, en los que son euskaldunes marido y mujer, y cuyos hijos no hablan nuestro idioma. Las lágrimas vertidas por esos compatriotas al presenciar la llegada de los coreanos, son lágrimas de cocodrilo. Frente a ellas podemos señalar el hecho, ciertamente excepcional, pero real y tangible, de que, hay “coreanos” euskaldunes y de que manos coreanas se aplicaron, en casos concretos, a servir a las actividades de la resistencia vasca».

Irujok berak ere ez baitzekien!—; gaizki zegoena euskaldun gurasoek seme-alabei euskara ez erakustea zen. Berdintsu zioen urte berean Jose Antonio Agirrek, aurrerago adieraziko dugun bezala.

Artikuluaren amaiera oso argia zen:

Langile atzerritarren etorrera herrialdearen ekonomiaren aurrerabideari eta garapenari egindako ekarpen gisa jaso behar dugu. Gure jarrera ezin da, beraz, etorri berri horientzat etsaitasunezkoa izan, baizik eta, aitzitik, Sabinen defendatzaileak esan zuen bezala «era guztietako begiruneekin eta bihotzetik sortutako maitasunarekin» emandako tratua, euskalduntasunera erakartzen saiatuz, aberriaren altzoan baneraturaz, aurrerantzean geurea bezainbeste haiena izan dadin. Horixe da soziala, demokrata eta kristaua, baina, gainera, Euskadiren etorkizunari komeni zaiona (*Id.*)¹¹.

Erakarri eta geureganatu behar genituen langile atzerritarrak¹² —beste nazio batekoak— maitasunez trataturaz, eta horixe zen soziala, demokrata eta kristaua, eta gainera komenigarria Euskadiren etorkizunerako, hots, ongizate materialerako, ulertzen da.

Zeferino¹³ Xemein Lanbarri «Jadarrka», Sabin Aranaren biografoa eta «Aberri»-koa, ez zegoen batere ados:

Eremu politikotik kanpo zaude zu, ez nazionalistatik bakarrik, baizik eta munduko nazionalisten eremutik ere. Zure teoria koreanoa ez da sostengagarria, ezta horretarako aipatzen duzun kristautasunaren bidez ere. Are gutxiago zuk aipatzen ere duzun pentsamendu sozial eta demokrataren aldetik. Eta are gutxiago abertzaletasunaren bidetik (Xemein, 1957, 124-125. or.).

Xemeinen iritzian, ez zen batere kristaua eskrupulurik gabeko ugazabek *koreanoak* onartzea haiek miseriazko soldatekin kontentatzen zirelako, noiz eta euskaldunak emigratu beharrean zirenean Ameriketara soldata duin bat eskuratzeko; gainera, espainiar horiek etorri ziren erregimenak antolatuta, eta gure herriari bere izaera kentzeko xedez: euskaldunen bizitza hiltzeko mehatxupearan jartzen zuten.

11. «La llegada de trabajadores extranjeros debemos recibirla como aportación hecha al progreso y desarrollo de la economía del país. Nuestra actitud no puede ser por lo tanto de hostilidad para esos recién venidos, sino por el contrario, el trato “con toda clase de consideraciones y con cariño, nacido del corazón”, que dijo el defensor de Sabino, procurando atraerles hacia lo vasco, absorbiéndolos en el regazo de la patria, para que en adelante, lo sea suya tanto como nuestra. Eso es lo social, lo demócrata y lo cristiano, pero, además, es lo conveniente al futuro de Euzkadi».

12. Frankismo-garaian, prentsa frankistak ez dakit zenbateraino jarraitzen zuen *Alderdi*, eta ez dakit ezer idatzi zuten Manuel Irujoren artikulua horretaz. Trantsizio-garaian idatzi izan balu, erreakzio-katea sortuko zuen terminologia sabindarra erabiltzeagatik; euskaldunak, batetik; atzerritarrak, espainiarrak, bestetik.

13. «Keperin» Sabin Aranaren santu-izendegiaren arabera. Hala deitzen zioten jeltzaleek, esaterako, Jose Antonio Agirrek. Izen-abizen ofizial espainolak: Ceferino Jemein Lanbarri. Ezizenak: *Jadarrka*, *Bachiller Belandia*, *Belandia* bakarrik ere bai, eta *Amandarro*. «Está Vd. fuera de la órbita política, no solamente nacionalista, sino simplemente nacional-mundial. Su teoría coreana no se sostiene, ni siquiera a través del cristianismo que Vd. invoca para ello. Mucho menos a través del pensamiento social y demócrata que Vd. también invoca. De ningún modo desde luego, a través del patriotismo».

Euskotarren bizitza heriotzaz mehatxatuz, berriro diot, guztiok ezagutzen dugulako, salbuespenik gabe, horrek dakarren deseuskalduntze izugarria eta atsekabez betetzen du euskotarren arima: euskararen galera eta haren heriotza baldin eta inbasioak jarraitzen badu; euskal arrazaren endekapena eta haren ohituren laxatzea (*Id.*)¹⁴.

Lehenik, euskararen galera, euskaldunak desagertzea, eta euskaldunen andeatze morala eta ohituren zabarkeria. Zenbat dago adierazpen horietan xenofobiatik, eta zenbat herri gisa heriotza hurbila sumatzeak sorturiko erreakzio erradikaletik? Esan liteke, bestalde, Xemeinen ikuspegi indibiduala bezainbat XIX. mendean lehen etorkin-olatu gertatzez geroztik zetorren ikuspegia zela, Sabin Aranak oso gordin adierazitako ikuspegiaren uberan eta ildoan.

Kanpotarrak kanporatu behar zirenik ez zuen esaten Xemeinek —hori Francoren erregimenak egin zuen Espainian, jendea kanporatzera behartu Euskal Herritik eta Kataluniatik eta Espainiako hainbat eskualdetatik, gerra irabaztean—:

Zeren ezin baita gaixotasun kroniko bat egun batean sendatu, baina neurriak bai har daitezke, inbaditzaileak, gure herrian aginte arrotza denak eta autoritate propioak jardun ezin izan duen denbora luzean eragin dituen gaitzak konpontzeko, eta, beraz, autoritate legitimo horren oniritzirik gabe emandako lege guztiak baliogabeak dira (*Id.*)¹⁵.

Faxistak indarrez sartzean, agintaritza legitimoa Euskadin Eusko Jaurlaritza zen, eta hark estatutua zuen oinarrian, eta hantxe zeuden zehaztuak eskubide politikoak izateko puntuan, euskal herritarrek zein ziren, zer ezaugarri bete behar zituzten, eta Francoren erregimena amaitzean, haiek jarri behar ziren indarrean. Estatuak beren baldintzak jartzen dituzten bezala herritartasuna lortzeko, Euskadik ere gauza bertsua egin beharra zuen.

Xemeinengandik Txillardegirengana etorririk, hark trantsizioa delakoa hastean, Eusko Ikaskuntzak prestaturiko estatutua izan zitekeela abiapuntua zioen. Beraz, alde batera, biak ere berdintsu, bertako agintaritzak ezarri behar zituela legeak aldeztetan, baina Xemeinek Eusko Jaurlaritza oinarrian zegoen estatutuaren erreferentzia aipatzen zuen, eta Txillardegik, lehenbiziko autonomia-estatutua, Hegoaldeko lau lurraldeak batera hartzen zituena, eta herritar bihurtzeko hainbat baldintza ezartzen zituena, aurrerago xehetasun gehiagorekin adieraziko dugun bezala.

Etortzen ari ziren guztiak ez ziren beharrezkoak gure industriarentzat Xemeinen iritzian, eta estatuak edo estaturik gabeko nazioen gobernuak —une hartan batere botererik gabe—, herriarentzat legeak egin beharra zeukaten:

14. «Amenazando de muerte la vida de los vascos, repito, porque es por todos reconocida, sin excepción, la tremenda desvasquización que produce y llena de desconsuelo el alma de todos los vascos: pérdida del euzkera y su muerte si la invasión continúa; degeneración de la raza vasca y relajación de sus costumbres».

15. «Porque no se puede curar en un día una enfermedad crónica; pero sí tomar medidas enderezadas a remediar los males causados por el invasor, autoridad extraña en nuestro Pueblo, durante el largo tiempo en que la autoridad propia no ha podido actuar, siendo por tanto inválidas todas las leyes dictadas a espaldas de esa autoridad legítima».

Legeak egin behar dira herriarentzat, eta beste eskubide sozial eta aberkoi batzuen alde. Eta eskubide horiek diruaren balio materialak baino garrantzi handiagoa dute, eta erlijioa, arraza eta hizkuntza dira, gaur egun koreanoen inbasioaren ondorioz hiltzeko arriskuan daudenak (*Id.*)¹⁶.

Balioen hurrenkeran hor, lehenik, erlijioa; bigarrenik, arraza, eta hirugarrenik, hizkuntza, Sabin *maisurarengandik* zetorren ortodoxia nazionalista errespetatuz.

Erljioak ez zuen eskatzen, Manuel Irujok zioen bezala, herri-inbasioak onartzea, zeren Sabin Aranek esana zuen bezala:

Guztiok gara anai-arrebak, haragiaren arabera guztiok bikote beretik gatozelako, eta guztiok, graziaren arabera, Jainko berak askatuak eta Jainko beraren oinordekoak gara; beraz, guztiak maitatu behar ditugu Jainkoarengana ez garamatzen maitasunarekin; baina zilegi da hain zuzen naturala delako mundu honetako bizitzan batzuk besteak baino maiteago izatea; eta, gainera, beharrezkoa ere bada, distantzia geografikoak eta desberdintasun klimatologikoak eta izaera eta zaletasunak direla eta, gizaki bakoitzak beste guztiei arreta ematea ezinezkoa delako. Kontenta bedi gizakia hurbilena maitatzeko berezko bulkada horri jarraitzearekin, eta arrazaren, hau da, bere familia handiaren premiei berehala eta lehenatasunez erantzutearekin, eta berau hainbat lur eta klima hartzen dituen neurrian hedatzen bada ere, zapaltzen duen lurzoruan bizi den zatiaz interesatzera mugatzen da nagusiki, horregatik beste gizakiekiko gorrotoa eta mespretxua eragin gabe (*Id.*)¹⁷.

Beste artikulua bat ere idatzi zuen Xemeinek *koreanoen* inbasioaz. Aurreko artikuluaगतिक askok zoriondu zutela zioen hasieran, eta beste batzuek, berriz, bere artikuluaeren muinarekin ados egonagatik, euskal industriarentzat beharrezko ez ote ziren aurpegiatzen ziotela. Erantzuki horri honela erantzuten zion:

Ni, ezer baino lehen, euskal nazionalista naiz, eta horrela adierazi behar nuen ALDERDIIn, zeina gaur egun EAJren organoa den. Eta euskal nazionalista naizen aldetik, esan behar dut nik —industria hori euskal ezaugarriak desagertzeko bidea bada— gustura salduko niokeela Espainiari edo Espainian ezarriko nukeela, espainiarrak han zoriontsu bizi daitezen, gure Aberrian sartu beharrik gabe.

16. «Hay que legislar para el pueblo y por la defensa de otros derechos sociales y patrióticos, que tienen más importancia que los materiales del dinero y son la religión, la raza y la lengua, los tres amenazados de muerte por la invasión coreana actual».

17. «Todos somos hermanos, porque todos procedemos, según la carne, de la misma pareja y todos, según la gracia, somos redimidos y herederos del mismo Dios; a todos por consiguiente debemos amar con el amor que no conduzca a Dios; pero es lícito puesto que es natural tener en la vida de este mundo, predilección por unos respecto de los otros; y es además necesario, porque no es posible dadas las distancias geográficas y las diferencias climatológicas y de carácter y aficiones, que cada hombre atienda a todos los demás. Conténtese el hombre con seguir ese impulso natural de amar más al más próximo y con atender inmediatamente y con preferencia a las necesidades de la raza, esto es, de la gran familia a que pertenezca, y aún si ésta se extiende tanto que abarque varios suelos y varios climas, ciñáse a interesarse preferentemente por la porción que habita el suelo que pisa, sin por esto incurrir en odio ni en desprecio a los demás hombres».

Badakit batzuei oso gogorra irudituko zaiela nire teoria hau, eta agian oraindik zentzugabea, aurrerapenaren izenean. Baina herri baten zoriona ez dago bere aberastasun materialean, zorion pertsonalean edo indibidualean ere ez dagoen bezala. Badira aberastasun batzuk hiltzen dutenak, usteltzen dutenak, eta gizabanakoak eta nazioak galbideratzen dituztenak (Belandia, 1957)¹⁸.

Bilbori horixe ari zitzaion gertatzen berari handik heltzen zitzaizkion albisteen arabera —Donibane Lohizunen bizi izan zen 1937az geroztik—:

Bilbo herri zintzoa zen, negozio garbiak eta ohitura osasuntsuak zituena, eta gaur egun, esaten digutenez, ohituren laxatzeak benetan pena ematen du; eta merkataritzak bere berezko zintzotasuna galdu du; lehen hitza sinadura bat zen, gaur egun sinadura mito bat da; estraperloa, esplotazioa eta lapurreta, erabat zabalduak daude. Negozio zikin guztiak baimenduta daude; ez dago burdinarik Labe Garaietan; baina kafetegietan eros daiteke, milioiak pilatzea beste kontzientziarik ez duten estraperlisten bidez; euskal langileak, berriz, aparteko orduak egin behar ditu, bizpahiru enpresatan, apaltasunez bizi eta familia txukun mantendu nahi badu.

Hori guztia inbasio «koreanoak» ekarri digu. Zorigaiztoko emaitza triste horretara iristeko industriaren gorakada hori beharrezkoa izan da. Izan ere, jakina, industria horri eusteko atzerriko eskulana behar da, miseriako soldaten truke lan egiten ohitua dagoena (*Id.*)¹⁹.

Iritzi gogorra da, bidegabea etorkinekiko, noski —denak pakete berean sarturik—, baina nazionalisten artean bereziki, eta euskaldun eta euskal herritarren artean, oro har, ikuspegi aski zabaldua zena jasotzen zuen itxura badu.

Alderdi-n kanpotarren inbasioaren gaia nahiko gori zebilelako hain segur, eta ez aldizkari hartan bakarrik, 1957ko urteko gabon-mezuan, Jose Antonio Agirrek espresuki aipatu zuen *koreanoen* afera. Noren aldera lerratuko ote zen: Irujoren ala Xemeinen aldera?

18. «Yo soy, antes que nada, nacionalista vasco, y así tenía que expresarme en ALDERDI, que es hoy el órgano del P.N.V. Y como nacionalista vasco tengo que decir que yo —si esa industria es vehículo de desaparición de las características vascas— se la vendería gustoso o la implantaría en España, para que los españoles vivan allí felices, sin necesidad de tener que irrumpir en nuestra Patria.

Ya sé yo que a algunos les parecerá muy dura esta teoría mía, y tal vez aún disparatada, en nombre del progreso. Pero la felicidad de un pueblo no está en su riqueza material, como no está tampoco en la felicidad personal o individual. Hay riquezas que matan, que corrompen, y que pervierten a los individuos y a las naciones».

19. «Bilbao era un pueblo honrado, de limpios negocios y sanas costumbres, y hoy, según nos cuentan, la relajación de costumbres es cosa que da verdaderamente pena; y el comercio ha perdido su honradez innata; antes la palabra era una firma, hoy la firma es un mito; el estraperlo, la explotación y el robo, así, como suena, están a la orden del día. Todos los negocios sucios están permitidos; no hay hierro en Altos Hornos; pero se puede comprar en los cafés, a través de estraperlistas sin más conciencia que amasar millones, mientras que el obrero vasco tiene que trabajar horas extraordinarias, en dos o tres empresas, si quiere vivir modestamente y sostener decorosamente a la familia.

Pues bien; todo eso nos lo ha traído la invasión “coreana”. Para llegar a ese triste y fatal resultado ha sido necesario ese auge industrial. Porque, naturalmente, para sostener esa industria hace falta mano de obra extranjera, acostumbrada a trabajar por salarios de miseria».

Jose Antonio Agirrek, lehenik, zioen ezen beren lurretatik emigratu beharra zuten behartsu horiek betiko «miserableak» zirela, estatuaren bidegabekeriaren biktimak, eta bigarrenik, gure industriak haien beharra zuela, Irujok zioen bezalatsu:

Beste lurralde batzuetara berenak ukatzen dien ogiaren bila emigratzen duten behartsu horiek guztiak betiereko zoriogaiztokoak dira, arbitrariotasuna nagusi den eta desberdintasun sozial nabarmenak sortzen dituen Estatu baten bidegabekeriaren lehen biktimak (...). Egiaren ohoretan, komenigarria izango da adieraztea ezen euskal industriaren garapenak, duen garrantziagatik, galdegiten eta exijitzen duela eskulan arrotza, dela bertakoen gabeziagatik, dela gure herrikideek lan horietan ordaintzen dituzten soldata murriztuekin kontentatzen ez direlako. Baina kontua da industrialari eta kontratisten artean lehiari ibiltzen direla egunero Euskadin errepideak edo trenak uzten dituztenak nork eskuratuko, zeinak nazio-izaera oso desberdinekoak diren (Ugalde, 1980, 986-987. or.)²⁰.

Aitortu beharra geneukan, Agirre lehendakariaren arabera, geu ari ginela geure leinukoak ez zirenei deika:

Geu gara, euskaldunak geurok, gure leinukoak ez direnak deitzen ari garenak industriaren beharragatik, indigenen gabeziagatik, edozein arrazoiengatik. Prozesu hau lehen gertatu da, eta gure herria airoso atera zen, gaur egun entzuten ari garen aiene jeremiakoak adierazi gabe. Arazo horrek bete-betean eragiten dio gure egitura nazionalari, eta, arrazoibide biologikoetara jo beharrik gabe, oso larria da gure Euskadi bere nortasuna bereizten duten elementu garrantzitsuak galtzen joatea, bere gorputz nazionalean arrotzen agerpen masibo eta batzuetan neurrigabeak eraginda. Arazo hori egun batean arautu beharko da (*Id.*)²¹.

XIX. mendearen azken zatian eta XX.aren lehen zatian ere gertatu zela aditzera ematen zigun, eta jakin izan genuela geureganatzen, lehenago Irujok esaten zigun bezala, ez euskaldundu baina bertakotu bai bertakotu zirela esango baligu bezala; alabaina, larritzat ere jotzen zuen egoera, eta arautu beharra ere aipatzen zuen —gero arau horiek beti Espainiako gobernuak kontrolatu izan ditu, eta hemen edozein

20. «Todos esos necesitados que emigran buscando en otras tierras el pan que la suya les niega, son los eternos miserables, víctimas primeras de la injusticia de un Estado en el que la arbitrariedad reina, produciendo la más acusada desigualdad social (...). Convendrá señalar, en honor de la verdad, que el desarrollo industrial vasco, por su importancia, demanda y exige la mano de obra extraña, sea por carencia de la propia, sea porque nuestros compatriotas no se resignan al salario reducido que retribuyen tales trabajos. Pero es el caso que entre industriales y contratistas se disputan el material humano que diariamente deposita en Euzkadi la carretera o el tren traído de tierras de bien diferente compleción nacional».

21. «Somos nosotros, los propios vascos, los que estamos llamando a quienes no pertenecen a nuestra estirpe por necesidad de la industria, por carencia indígena, por la razón que sea. Este es un proceso que se ha producido antes y ante el cual nuestro pueblo salió airoso sin expresar los lamentos jeremiacos que estamos oyendo en nuestros días. Se trata de un problema que afecta de lleno a nuestra estructura nacional y, sin necesidad de acudir a razonamientos biológicos, es muy grave el hecho de que nuestra Euzkadi vaya perdiendo importantes elementos que distinguen su personalidad desdibujada por la irrupción masiva y a veces desproporcionada del elemento alienígena en su cuerpo nacional. Este es un problema que habrá que regularlo un día».

herritan erroldatzea nahikoa izan da, egun den bezala, espainiar nazionalitatekoa izanez gero, eskubide politiko guztiak izateko, hurrengo egunean botoa emateko, esaterako!—.

Baina zorrotz eta gogor Agirre lehendakariak etorkinei ez, baizik eta euskal leinu edo arrazakoei ekiten zien:

Koreanismorik arriskutsuena —orain darabilt hitza, ez lehenago— geure artean sortu eta bizi dena da, hau da, euskaldunen artean. Nazio-betebeharrak ahazten dituen oro eskola honetakoa da, bere hizkuntza utzi eta bere seme-alabei transmititzen ez dien euskaldun oro koreanismo askoz txarrago eta aberriarentzat larriagoa den heraldo bat da, lurralde arrotzetatik etorririk gurekin parekatu nahi dutenena baino. Langilea esplotatzen duen edo bidezko soldata ordaintzen ez duen euskal nagusia ere espiritu-egoera horren sustatzailea da. Arma espiritualak herria deseuskalduntzeko erabiltzen dituen elizgizona edo euskaldun izaeraz eta aberriko arazoez arduragabe dauden gazteak, askatasunagatik isuritako hainbeste odolagatik eta gure nortasunaren defentsan aintzaz beteriko historiagatik axolagabe egonik, koreanismorik txarrenaren sustatzaile ere badira (...). Ez dut ukatzen gure aurkariek gure deuseztatze nazionala nahi dutela. Baina eransten dut plan hori existitzen bada, aurrera egin dezan aliaturik onenak euskotar asko direla, beren izaera lotsagarriro ahaztu dutenak (*Id.*)²².

Euskalduna zenak, nahiz eta sozialki batere balio ez zion bere hizkuntzak, etsi egin behar zion, aldapa gora ibili beharra zuen, betebeharrak nazionalak hala eskaturik; euskal enpresaburuek jatorrak izan behar zuten, eredugarriak beren langileekin, haiei soldata duina ordaindurik, eta erlijiosoek ere bai, eta euskaldun gazteria ezin zen arduragabea izan aberriaren alderako, gurasoek gudu-zelaian isuritako odola ahazturik, euskaldunon historia eredugarria alboraturik.

Nork irakurriko zuen *Alderdi* 1957an? Euskaldun jeltzaleek, euskal enpresaburu jeltzaleek, apaiz jeltzaleek, eta gazte jeltzaleek, hortxe nonbait: haiei ari zen nazio-betebeharrak gogorarazten, engaiamendua galdegiten.

Azkenik, aterabiderik ez zegoen askatasunik gabe, Francoren erregimenaren pean irtenbiderik ez, baina euskaldunak eta euskotarrak zorrotzak baginen geure buruarekin lortuko genuen nazioa bizirik iraunaraztea —Agirrerren ezaugarri zen optimismoa zerion 1957ko gabon-mezuari—, frankismoaren basamortu idorra

22. «El coreanismo más peligroso —empleo ahora la palabra, no antes— es el que surge y vive entre nosotros mismos es decir, entre los vascos. Todo aquel que olvida los deberes nacionales pertenece a esta escuela, todo aquel vasco que abandona su idioma y sabiéndolo no lo transmite a sus hijos es un heraldo de un coreanismo mucho peor y más grave para la patria que aquel que viniendo de extrañas tierras quiera asimilarse a la nuestra. Aquel patrono vasco que explota al trabajador o no paga el salario justo, es también un fomentador de este estado de espíritu. El eclesiástico que utiliza las armas espirituales para desvasquizar al pueblo o los jóvenes despreocupados de su condición de vascos y de los problemas de su patria, indiferentes ante tanta sangre derramada por la libertad y ante una historia llena de gloria en defensa de nuestra personalidad, son también fomentadores del peor de los coreanismos (...). No niego que nuestros adversarios desean nuestro exterminio nacional. Pero añadido que si existe ese plan, los aliados mejores para que prospere son muchos vascos que han olvidado indignamente su condición de tales».

hainbestean zeharkatzea, lehen etorkin-olatuarekin lortu bide genuen bezala. Eta hitz horiek ez ziren berriak Jose Antonio Agirrerengan, baizik eta duela 25 urte baino gehiago esaten zituenak, hots, Espainiako II. Errepublikaren garaian:

Ez dago irtenbiderik askatasunik gabe. Hemen dago planteaturik bataila, gure herriak irabaziko duen bataila. Ez da lehen aldia historiak erregistratzen duena. Gure herrira datorren etorkina, gure lurra eta gure askatasun-kausa bere eginez, errespetuz eta maitasunez hartu behar dugu. Ez dira gaur egun esaten ditudan hitzak, duela hogeita bost urte baino gehiago azaldu nituen kontzeptuak dira. Zurrinak izan behar dugu, ez besteekin, geure buruarekin baizik, gure herriaren osasuna edo galera haien menpe baitago. Duela 60 urte gure Enkarterriak bete zituzten beste herri batzuetako jendea etorri zen bezala, gizaki haien ondorengoek gaur egun oso bestelako pentsamoldea erakusten dute, eta askotan eredugarria beren leinuaz harrotzen diren euskotar askoren alderako. Herrialdeak arrakasta izango du gure batasunarekin eta herria zerbitzatzeko erabaki hautsiezinarekin. Dagoeneko arrakasta izaten ari da (*Id.*)²³.

Beste figura politiko gailen bat Espainiako II. Errepublikaren garaian *maketoen* defentsan nabarmendu zena Manu Sota jagi-jagitarra izan zen. Hark garbi adierazi zuen ezen 1932an jada ezinezkoa zela etorkizuneko Euskal Errepublika kanpoko arraza edo etnietatik garbia izatea. Gure arbasoek ez zioten puntu garrantzitsu horri garrantzirik eman eta:

... komunikazio etengabea bizi gara, hobeto esanda, gurea ez den beste herri batek menderatuta eta aginduta, Euskadiren asmoetan halabeharrez eragina duen eta eragina izango ere duen herri batek. Ondorioa arraza bien gurutzaketa banaezina da. Horra hor egia ukaezina, euskaldun grinatsuenak ere aintzat hartu behar duena (Lorenzo, 1993, 109. or.)²⁴.

Manu Sotaren iritzian, egoera horrelakoa izanik, eta euskal abertzaleek garaitu nahi bazuten, haien abertzaletasunak, batez ere, humanismoa izan behar zuen, zeren haiek pertsona guztiak maite zituztelako nahi zuten pertsona guztiak ere haiek maitatzea, eta haiek nazionalitate guztiak errespetatzen zituztelako, haiena ere errespetatua izatea.

23. «No hay solución sin libertad. Es aquí donde la batalla está planteada, batalla que nuestro pueblo ganará. No es la primera vez que la historia lo registra. Al emigrante que viene a vivir a nuestro país a incorporarse a él, haciendo suya nuestra tierra y hasta nuestra causa de libertad debe rodearle el respeto y el afecto. No son palabras que hoy pronuncio, son conceptos explicados por mí hace más de veinticinco años. Hemos de ser rígidos no con los demás, sino con nosotros mismos que es de quienes depende la salud o la pérdida de nuestro pueblo. Así como hace 60 años vinieron a nuestro país gentes de otros pueblos que llenaron nuestras Encartaciones, los descendientes de aquellos hombres muestran hoy una mentalidad bien diferente y en muchas ocasiones ejemplar para muchos de los vascos que presumen ser de pura extirpe [*sic*]. El país triunfará con nuestra unión y con la decisión inquebrantable de servicio. Ya está triunfando».

24. «... vivimos en constante comunicación, supeditados y mandados mejor dicho, por un pueblo distinto al nuestro, un pueblo que influye e influirá fatalmente en los designios de Euzkadi. La consecuencia desgraciada es, el cruzamiento inseparable de ambas razas. He ahí la innegable verdad, que no puede desconocerla ni el vasco más apasionado».

Idea horiek jendaurrean agertzeko abagunea lau gaztetxo abertzalek eman zioten. Mitin abertzale batetik zetozela, *maketoen* aurkako iranez betetako abesti bat kantatu zutelako. Arrazazko ezinikusia bazegoen eta horregatik horren aurka egin beharra sentitzen zuen, hasteko, ideal berbera sentitzen zutenei kargu eginez, beren jarrera desgokiagatik erantzuki eginik. Zeren gai garrantzizko horretan, euskal abertzaleen jarrerak honako hauxe izan behar zuen:

Ba betikoa, maitasunarena eta senidetasunarena. Buruturiko egintzak kristau-espirtuarekin onartzea eta gure ekarpen txikiarekin munduari hain beharrezkoa zaion bake unibertsalari laguntzea. Gure aberriaren askatasunaren alde gogor borrokatzea, baina gure lurrian bizi den atzerritarra gutxietsi gabe, nahiz eta hura gure aberriaren jabe den herrikoa izan²⁵.

Arrazoi kristau horiek askitza jotzen ez bazituzten *maketoen* aurkako gazte abertzale irainzale haiek, errepikatzen zien gure herriko giro politikoa gehiago ez pozoitzeko; jarrera horretatik ez zela aberriaren askatasuna etorriko, eta besterik ez bada, euskal aberriagatik bizia eman zuen langile immigrantearen memoriaren errespetuagatik egiteko, Ángel Acero y Juncosa, 1931ko azaroaren 9an, Partido Republicano Radical Socialistako kide batek eraila²⁶.

Horrenbestez, esan liteke jada II. Errepublika aldiaren erdian ere figura abertzale gailen batzuk hasita zeudela arraza edo etnia ezberdinen arteko bizikidetzaren harmoniatsua defendatzen, euskal gizartean ezinikusi etnikoa bazegoenean.

1.2. *BESTE ABERTZALE BATZUEN IRITZIAK: ANV/EAE (JOSE OLIVARES LARRONDO «TELLAGORRI») ETA IRRINTZI (MANUEL FERNANDEZ ETXEBERRIA «MATXARI»), ANDIMA IBINAGABEITIA IDOIAGA*

Irujok eta Agirre lehendakariak, nork bere erara, etorkin espainiar behartsuak geureganatzeko geuk geure nazio-betebeharrak ondo bete behar diren garrantzi giltzarria azpimarratzen zuten, haiek ondo hartzeaz batera. Lehen olatua geureganatzeko gauza izan baginen, bigarren olatua geureganatzeko ere izango ginen, baldin eta geure nazio-eginbideak zorrotz atxikitzen bagenituen. Halaber, euskal industriak beso horiek lanerako beharrezkoak zituela zioten biek.

Xemeinek, aldiz, hainbeste ez genituela behar; kristauak eta demokratek eta sozialak izateak ez gintuela behartzen etorritako guztiak hartzera, eta ongizate materiala baino askoz goragoko balioak bazirela: erlijioa, arraza garbi mantentzea, hizkuntza.

25. «Pues la de siempre; la del amor y la fraternidad. Admitir los hechos consumados con espíritu cristiano y contribuir con nuestra pequeña aportación a esa paz universal que tan necesaria le es al mundo. Luchar con denuedo por la libertad de nuestra patria, pero sin menospreciar al extranjero que vive en nuestro suelo, aunque éste pertenezca al pueblo que nos avasalla».

26. Ikus *Jagi-Jagi*, 28, 1933ko apirilaren 8koa.

Jose Olivares Larrondo «Tellagorri»²⁷, Buenos Airesen, ANV/EAEren *Tierra Vasca* agerkariaren zuzendari izan zen 1956ko uztailetik 1960an hil zen arte. Etorkinei buruz, 1957an kazeta horretan argitaratu ziren bi artikulua, biak editorialak, segur aski bereak dira. Bata, Irujorena *Alderdi*-n bezala, 1957ko ekaineko alean argitaratua, eta bigarrena, Jose Antonio Agirrerren gabon-mezua irakurri ondoan idatzia, eta 1957ko abenduko alean argitaratua.

Tellagorri 1957ko ekaineko artikuluan bereizi beharra azpimarratzen zuen *koreanoen* artean: etorkin frankista zapaltzaileak ziren batzuk, eta etorkin langile behartsuak ziren besteak; eta horretaz gain, euskaldunak edo euskal herritarrak ere bitan banatzen zituen: frankistak eta frankista ez zirenak; lehenbizikoen patua, hots, kanpotar frankistena euskal herritar frankistenarekin berdintzen zuen hortxe nonbait, egotzi egin beharko lirateke denak batean; eta, aldiz, etorkin langileak?:

Bata, Euskadira lan frankista egitera joan direnek osatzen dute, euskaltzaletasun edo berezitasun nazionala den guztiaren aurka lan egitean datzana, horren ondoriozko jazarpenekin. Polizian, Falangean, sindikatu bakarrean, prentsan, aldundietan eta udaletan sartuta daude. Elementu horiek guztiak, gobernadore zibilak eta eliz hierarkiak ahaztu gabe, gainera, langileen aurkako lana egiten ari dira. Inork ez du herrialdean geratu behar, eta ona izango litzateke beren bidaian lagun egingo baliete ez euskaldun gutxi, zeinek lanpostu handi edo apalak izanik, morroi eta traidore gisa jokatu duten, tirania bati zerbitzatu diotelako, larria dena, eta, gainera, tirania arrotz bati, beren herria bereziki esklabo bihurtu eta jazartzen zuena, eta hori oso ere larria da.

Beste koreano mota da bizi ahal izateko lan egiteko xede bakarrarekin iritsitako jendeak osatzen duena; frankismoak kasu askotan lekualdaketa hori, helburu antieuskaldunekin, bultzatu izanak ez du langile horien izaera aldatzen (Tellagorri, 1957a)²⁸.

Euskal herritarrek zer jarrera hartu behar zuten etorrera hori zela bide? Errazena zen esatea 1937 ondotik etorritako guztiak egotzi egin behar zirela, baina ezinezkoa izateaz gain:

Bat-batean, penintsulako gainerako herriekin elkar ulertzea, beharrezkoa iruditzen zaiguna, eragotziko luke, herri horientzat guztientzat, gurea barne, egokia izango litzatekeen konponbide federatibo batera iristeko.

27. *Kasia* izengoitia ere bai. Ikus Auñamendi Eusko Entziklopedia.

28. «Una está formada por quienes han ido a Euzkadi a realizar una labor franquista, que consiste en trabajar contra todo lo que sea vasquismo, peculiaridad nacional, con las consiguientes persecuciones. Están metidos en la policía, en la Falange, en el Sindicato único, en la prensa, en las diputaciones y ayuntamientos. Todos estos elementos, sin olvidar los gobernadores civiles y jerarquías eclesiásticas, vienen realizando una labor antivasca y antiobrera además. Ninguno de ellos debe quedar en el país, y harían bien en acompañarlos en su viaje no pocos vascos, que ocupando puestos prominentes o modestos se han portado como unos serviles y unos traidores, porque han servido a una tiranía, lo cual ya es grave, y además a una tiranía extraña que esclavizaba y perseguía especialmente a su propio pueblo, lo cual es gravísimo.

La otra clase de “coreanos” está constituida por las gentes llegadas con el único objeto de trabajar para poder vivir; el hecho cierto de que el franquismo haya animado en muchos casos ese traslado, con fines antivascos, no cambia la condición de esos trabajadores».

Errepresalietan ere pentsatu beharko litzateke: ez genuke kexatzeko eskubiderik izango Espainiako leku ezberdinetan lan egiten duten eta bizi diren euskaldun guztiak era berean kanporatuko balituzte.

Bestalde, irtenbide hori kristau moraletik eta moral orotik ehun legoatara dago, erabateko giza elkartasun falta dakarrelako, elkarbizitza harmoniatu eta baketsu baterako ezinbestekoa (*Id.*)²⁹.

Espainolismoa sendotzera eta euskaltasuna suntsitzera zetozenen alderako aurreiritziak justifikatuak zeuden, baina lanera zetozenen aurkakoak ez. Egia zen hizkuntzari zegokionez, nahi gabe ere, kalte egiten zutela, baina:

Eusko Jaurlaritzaren autonomo batekin, zeinak euskararen berreskurapen erabatekoaz arduratu beharko lukeen, irrika natural-naturala eta inork eztabaidatu ezingo duena, etorkinen seme-alabek euskara ikasiko dute.

Laburbilduz, gure jarrera hau da: Euskadira bizi ahal izateko lan egitera beste kezkarik gabe joan diren gizaki horiek onartu eta geureganatu egin behar dira. Hau, morala izateaz gain, posible den bakarra iruditzen zaigu (*Id.*)³⁰.

Lehen olatuko langileak integratu zirela argudiatzeko gerra zibilean izan zuten jokabidea aipatzen zuen: Francoren aurka ibili zirenak euskotar bilakatuak ziren:

Zer gertatu da Bizkaira joan ziren milaka eta milaka peoi gaztelaeuekin —ez Francok eramanak, euskal ugazabek baizik— meategietan lan egitera? Izan ere, haiek izan ezik, beren seme-alabek eta bilobek euskaldun gisa sentitzen eta jokatzeko dute: azken gerra zibilak erakutsi zuen hori, maketoen seme-alaba eta biloba horiek euskotarrago agertu ziren jaiotzez, gurasoez eta aitona-amonez euskotar zirenak baino (*Id.*)³¹.

Espainiar edo iberiar federalista, langile kanpotarrak asimilatzearen aldeko eta hizkuntza-asimilazioaz optimista ageri zitzaigun Tellagorri 1957an, jada 65 urte zituela. Francoren aurka gerra egiteari gehiegizko garrantzia ematen ziolakoan nago euskalduntzeko puntuan: zenbat sozialista, komunista eta errepublikar euskal herritar aritu zen Francoren aurka gerran, espainol sentiturik baina ezkertiar?

29. «Por de pronto, imposibilitaría el entendimiento, que consideramos necesario, con los demás pueblos peninsulares a fin de llegar a una solución federativa conveniente para todos esos pueblos, incluido el nuestro.

Habría que pensar también en las represalias: no tendríamos ningún derecho a quejarnos si todos los vascos que trabajan y viven en distintas partes de España fueran igualmente expulsados.

Por otra parte, esa solución está a cien leguas de la moral cristiana y de toda moral porque supone una absoluta falta de solidaridad humana, indispensable para una convivencia armoniosa y pacífica».

30. «Con un gobierno vasco autónomo, que habría de preocuparse de la recuperación total del vascuence, anhelo naturalísimo y que nadie podrá discutir, sus hijos lo aprenderán.

En resumen, nuestra actitud es: a esos hombres que han ido a Euzkadi sin más preocupación que la de trabajar para poder vivir, hay que aceptarlos y asimilarlos. Esto, además de ser lo moral, nos parece lo único posible».

31. «¿Qué ha ocurrido con miles y miles de peones castellanos que fueron a Vizcaya —llevados, no por Franco, sino por patronos vascos— a trabajar en las minas? Pues que, sino ellos precisamente, sus hijos y sus nietos sienten y actúan como vascos: la guerra civil última lo demostró, esos hijos y nietos de “maquetos” se mostraron más vascos que no pocos vascos de nacimiento, de padres y de abuelos».

Gorago iruzkindu dugun Agirre lehendakariaren gabon-mezuarekin oso bat zetorren:

Immigrazio horrek euskal herriari sor liezaiokeen arazoa berpizkunde nazionaleko gure lanaren aurka agertzea litzateke. Hori gertatuko balitz, beren jokabideari dagokion beste batekin erantzuteko garaia iritsiko zatekeen. Orduan ez lirerateke soilik printzipioz direna bezala kontsideratuko, baizik eta aberriaren etsai bezala, menderatzen saiatzen diren inbaditzaile bezala, gureaz bestelakoa den beren idiosinkrasia inposatzen saiatzen direnak, gure hizkuntza, gure bizitzaren zentzua, gure izateko modu berezia, gure izaera nazionala akabatuko luketenak..

Baina esperientziak irakasten digunaren arabera juzgatu behar badugu, hori ez da horrela izango [*Gorago jaso dugun adibidea errepikatzen du, Bizkaiko meatzeetara etorritako etorkinen seme eta biloben etsenplua gerran*]. Ez dugu horren beldur izan behar: gure aberriarentzako arriskuak bestelakoak dira, eskolako maisuak, indar armatuak, poliziak, gobernadore zibilak, elizakoak (horien artean euskaldunak egon ziren eta daude), ugazabak, kazetariak, traidoreak...

Askatasuna lortu behar dugu. Hori lortuta, konpondu egingo litzateke negargarri horiek planteatzen duten arazoa, eta etorkinek ez lukete bat ere planteatuko (Tellagorri, 1957b)³².

Honaino ANV/EAEkoen ikuspegi nagusia esan dezagun, Irujo eta Agirrerengandik aski hurbila.

Gatozen orain *Irrintzi*-koengana. Manuel Fernandez Etxeberria «Matxari» eta Andima Ibinagabeitia ziren idazle nagusiak Caracasen bizpahiru urtez plazaratu zuten *Irrintzi* kazetan. Hark gaztelaniaz eta Ibinagabeitiak euskaraz. Horiena ezberdina zen.

Honako hitz hauekin egin zuten aurkezpena 1958an atera zuten lehen alean:

Irrintzi ez dator Abertzaletasun merke bat saltzen: «Euzko-Alderdia»ren elburu ta oiñarriak ditu bereak, orixe baita, bere ustez, Euzkadi'ren osasunerako bide bakar eta zuzenena. Ez dator abertzaletasunaren maisu izatera ere (...). Aberriko bideetatik aldentuta dabilzanak ordea, bide zuzenera ekarri nai lituke³³.

32. «El problema que podría plantear esa inmigración al pueblo vasco sería el de su oposición a nuestra obra de renacimiento nacional. Si eso se diera, entonces habría llegado el momento de contestar a su conducta con otra correspondiente. Entonces no podrían ser considerados únicamente como lo que en principio son, sino como enemigos de la patria, como invasores que tratan de dominar, de imponer su idiosincrasia, que es diferente a la nuestra; que acabarían por matar nuestro idioma, nuestro sentido de la vida, nuestro modo particular de ser, nuestro temperamento nacional.

Pero si hemos de juzgar por lo que la experiencia nos enseña eso no será así. No es eso lo que debemos temer: los peligros para nuestra patria son otros, los maestros de escuela, las fuerzas armadas, policías, gobernadores civiles, eclesiásticos, (entre los cuales hubo y hay vascos), patronos, periodistas, traidores...

Lo que tenemos que lograr es la libertad. Conseguida ésta quedaría resuelto el problema que plantean estos indeseables, y los inmigrantes no plantearían ninguno».

33. «Aurkezpen» in *Irrintzi*, lehen alea, 1958.

Ez zeuden batere ados 1956an, Parisen Lehen Mundu Batzarrean hartutako erabakiekin; ez zeuden ados gerra-galtzaile zen Espainiako Errepublikak onarturiko autonomi estatutua errebindikatzeko jarraitzearekin: ez monarkiarik eta ez errepublika espainiarrik, Euskadiren independentziaren alde zeuden indarrak metatzeko garaia zen irrintzizaleen ustez.

Lehen ale horretan Matxariren artikulua bat zetorren, Jose Antonio Agirrerren gabon-mezua kritikatzeko zuena. Eta idatzi kritikoa horren gainean Jose Antonio Agirrerren argazkia, erretratu itxurakoa, idatzun hau zuela: «José Antonio de Aguirre, Presidente del Gobierno Vasco de la República Federable Española».

Eta idatzian bi ideia nagusi; bat: Agirre lehendakariaren diskurtsoa oso zaharra zela, eta PSOEko kide famatu Perezaguak³⁴, *koreanoen* defendatzaile irmoak distira ateratzeraino «gastatu» zuela, duela berrogeita hamar urte lehenago. Baina Perezaguaren diskurtsoari buelta Sabin Arana Goirik eman ziola.

Baina hori baino axola handiagoa zuen beste honako ideia honek: espainolizazioaren arrazoi nagusia ekonomikoa zen, eta irtenbidea etorriko zen euskaldunak konbentzitzen ginenean gizarte justu bat lortzeko independentzia beharrezkoa genuela. Borroka soziala eta nazionala txanpon beraren aurkia eta ifrentzua direlakoa oroitarazten du. Era berean, aditzera ematen zuen Gaztela beste hiru nazio bereganatzen ari zela, galegoa, euskalduna eta katalana, eta hiru nazionalitate horien hizkuntzak desagertzean bururatuko zela espainiartzea:

Euskadi proportzio asaldagarrietan espainiartzen ari da. Nahiz eta dena azpimarratzera jota, ekonomiaren bidetik (...). Edozein gizakik, lurraren zabalera edozein dela ere, bere lurraren inbaditzaileekiko sentitzen duen gorrotoa, Aberriarena, Euskadin itota dago (...). Gaztelak, fabrikarik gabe, hori justifikatzen duen kanpoko arrazoirik gabe, baina federekin, iraunkortasunarekin, sakrifizioarekin, ustezko Espainiaren izendapen komunaren pean, iberiar nazionalitate guztiak bereganatzeko bidea darama, eta hori ez litzateke hain larria izango, honegatik ez balitz: Gaztelako inperio absolutua gertatuko dela euskara, galiziera, katalana erabat desagertzen direnean. Hau da, Espainia izan dadin —bakean noski—, gaur zapaltzen dituen nazionalitateen mosaikoa osatzen duen guztiaren heriotza gertatu beharko da (...). Bi hitzetan esanda: gizakiak gizakia esplotatzearen aurka altxatu behar da Euskal Herria, eta hori erabat lortu ahal izango da soilik geure burua gobernatzeko dugun eskubidea berreskuratuz. Euskaldunok ulertzen dugunean, Madrilen legeak eginez gero, euskal gaitz sozialek ez dutela inoiz erabateko erremediozik izango, EUSKADIREN INDEPENDENTZIA berreskuratzekeo dugun premia larria ulertuko dugu³⁵.

34. Toledon jaioa 1860an. Pablo Iglesiasen lagun egin eta Bilbora bidali zuen alderdiak 1885ean. Indalecio Prietorekin iskanbilak izan zituen, eta alderdi komunistara igaro zen.

35. «La inexcusable revolución vasca» in *Irrintzi* 15. alea. «Euzkadi se está “españolizando” en proporciones alarmantes. Aunque incidiendo en todo, por las vías de la economía (...). El odio que cualquier ser humano, donde quiera que sea a lo ancho de la tierra, siente por los invasores del suelo propio, de la Patria, en Euzkadi está ahogado (...). Sin fábricas, sin razones exteriores que lo justifiquen, pero con fe, perseverancia, con sacrificio, Castilla lleva camino de absorber, bajo la denominación común de la pretendida España, todas las nacionalidades ibéricas, lo que no sería tan

Etorkin espainiarrekiko bestelako iritzia ematen zuen Mexikotik idazten zuen Carlos Villanuevak, salbuespenak salbuespen, euskal emigranteak goraiatzeaz bat:

[Euskadi tirinizatzen ziharduten espainiar eusko-arerioen] bigarren helburua, eta gaur egun haientzat funtsezkoa dena, euskal familia deuseztatzea da, eta horretarako, euskal kapitalismoaren konplizitatearekin, bat, traidoreena, eta bestea, kontzienteki, langile espainiarren inbasioaz baliatzen dira, kopuru beldurgarrian euskal herri guztietan eta baita baserrietan ere txertatzen ari baitira.

Horiek, euskaldun emigrantearen kontrara, zeina herrialde arrotz batera iristen denean bertako ohituretara egokitzen den, bizi den herrialdeko legeak errespetatzen dituen, politikan sartzen ez den, hartu duen herriaren ongizatearen alde lan egiten duen, eta gizon zintzo eta ongi jaio orok mesede egiten dionari zor dion esker ona sentitzen duen, iritsi eta gutxira, umiltasuna, fikziozkoa edo benetakoa galdu dutenean, zeinarekin gure sorterrira iritsi baitziren, salbuespen gutxi batzuk izan ezik, euskalduna mespretxatzen baitute, agintzaile bihurtzen saiatuz (horren froga argiak ditugu gaur egungo mendearen hasieran gure lurraldera lan egitera iritsi zirenen jokabidean), alderdi politikoetan edo langile eusko-arerioetan afiliatzen dira, eta zinegotzi, alkate eta are diputatu (kudeatzaileak ere) hautatzen saiatzen dira³⁶.

Andima Ibinagabeitiagana etorritz, berak ez zuen artikulu sakonik idatzi *koreanoez*, ematen du aberritik lortzen zuen informazioa ere ez zela oso zuzena, eta hori bai, barru-barrutik ateratzen zitzaion espainiarren etorrera handiegiaren aurrean, aurka gogor egiteko garrasi antsiatua Caracaseko erbestetik:

Odola zañetan izoztuteko berri bat irakurri dugu Donostiako izparkarietan: «Aurten Elgoibar'en soldaduzkarako presentatu diran mutilen artean euneko irurogeitamar (70%) erritik kanpokuak dirala», koreanuak alegia... Nora doa gure aberria? Nora goaz

grave si no fuese que el imperio castellano absoluto, sobrevendrá cuando hayan desaparecido de plano el euzkera, el gallego, el catalán. Esto es; para que España sea —en paz, claro— tendrá que sobrevenir la muerte de cuanto constituye el mosaico de las nacionalidades que hoy oprime (...). En dos palabras: hay que levantar el pueblo vasco contra la explotación del hombre por el hombre, lo que solamente se podrá conseguir de manera plena, recuperando nuestro derecho a regirnos por nosotros mismos. Cuando los vascos entendamos que “haciéndose las leyes en Madrid” nunca tendrán remedio cabal los males sociales vascos, comprenderemos la necesidad imperiosa en que estamos de recuperar LA INDEPENDENCIA DE EUZKADI».

36. «Hablando claramente» in *Irrintzi* 8. alea. «Su segundo objetivo, y actualmente primordial para ellos, es la anulación de la familia vasca, y para ello, con la complicidad del capitalismo vasco conscientemente uno, el de los traidores, e inconscientemente el otro, se sirven de la invasión de masas de trabajadores españoles, que en número terrorífico se están incrustando en todos los pueblos vascos e incluso en los caseríos.

Estos, que al contrario del vasco emigrante, que cuando llega a un país extraño se adapta a sus costumbres, respeta las leyes del país donde reside, no se inmiscuye en la política, labora por el bienestar del pueblo que lo ha acogido y siente el agradecimiento que todo hombre honrado y bien nacido debe a quien le favorece, al poco tiempo de llegar, cuando han perdido la humildad, ficción o real, con la que en estado paupérrimo llegaron a nuestra patria, salvo contadas excepciones, desprecian lo vasco, procurando erigirse en mandones (pruebas claras tenemos de ello en la conducta de los que a primeros del siglo actual llegaron a trabajar a nuestra tierra), se afilian a partidos políticos u obreros antivascos y procuran ser elegidos concejales, alcaldes e incluso diputados (también gestores)...».

euskaldunok? Eta inundaziño ikaragarri orren aurrean eskuak gurutzatuta egon bear ote dugu oraindik? Oraindik okerragoa: maketu oriek irabazteko filosofikeritan ondatuta ta pentsaketan? Ez, eta ez. Nundik edo andik ujolde orren aurka lanean ai bear dugu, bestela gure izatasuna bertan galduko dugu, betiko galdu ere. Gogorrez, indarrez, suz, ezpataz... al diteken bideetatik (Ibinagabeitia, d.g.).